

BALOREZKO PROPOSAMENA



Uribe Kostako gazteen artean nolabaiteko beharrizan ikusi dugu; hau da, gazteek beraien aisiaz disfrutatzeko erabilera anitzeko diskoteka baten beharra dagoela ikusi dugu. Gazteek asteburuetan diskoteka batera joan nahi badute, Bilbora hurbildu behar dira, eskualde honen baitan horrelako zerbitzua eskaintzen duen lokalik ez dagoelako.

Gure enpresa diskoteka zerbitzua eskaintzetik haratago doa, hau da, **erabilera anitzeko eremua** izan nahi du, LAHEI deitua. Honen arira, faktore garrantzitsuenetariko bat, ordaiketak hatz markaren bidez izatea da. Sistema hau, Euskal Herri mailan bakarra eta berritzailea da. Gure diskotekako helburu handiena **gazte** guztien **nahiak** asetzea, eta inguruko gazteak elkartu eta beraien artean ezagutzea eta harreman ezberdinak sortzea izango litzateke. Pandemiaren eraginez, eskualdeko gazteak haien herrietan gelditu izan dira eta ezin izan dute beste herrietako jendearekin fisikoki erlazionatu, horregatik, sortu dugu diskoteka hau, gure enpresa honek hori eskaini dezakeelako.



Gure adineko jendeak erabiltzen dituzten diskoteka gehienak Bilbo inguruan kokatzen dira (Indautxun, Moma; Abando, Back; Boluetan, Santana; Astrabuduan, Sonora ...), baina ez dago **dirurik eta gauzak galtzeko beldurrik gabe joan ahal izatearen abantailarik. Honek bereizten gaitu merkatutik, ezberdin egiten gaitu.**

Hala ere, LAHEIren berezitasunaren hainbat faktore aurkitu ditzakegu.

Lehenik, **hatz sistema**. Euskal herri mailan bakarrak eta lehenak izango gara. Sistema honen bidez, ordainketarako abantailak izango ditugu, diruzorroa ez eramatea garrantzitsuenak. Honekin esan nahi duguna, eremu honetan ez dela zertan dirurik eraman behar, hatzarekin ordaindu dezakezulako. Hau ere gauza berritzailetzat ikusten dugu, izan ere, inguruko diskotetek horrelako zerbitzurik eskaintzen duen diskotekarik ez dagoelako.

Bigarrenik, **adin gabekoek, gure diskotekan sartzea posible izango dute, 16 urtetik gorakoek, zehazki.** Honela, edozein adineko jendea sartzea ahalbidetuko dugu. Baita, **egunaren arabera, adin saio desberdinak edukiko ditugu,** hau da, ostiraletan, 16-18 urte bitarteko gazteak sartu ahalkodira soilik.. Larunbatetan, 18tik gorakoak. Eta igandetan, jubilatuentzako festa. Honekin batera, gure musika eta eremua, Bizakia mailan bereizgarria izango da. Reggetoitik aparte, euskal musika, jubilatuentzako musika, techno ... Bestalde, aipatzekoa da, letra matxistak dituzten musika ez dela onartua izango. Gauza horiek oso zorrotz eramango ditugu, gure eremua denontzako inguru seguru bilakatu nahi dugulako. Aisiaz libre gozatzeko aukera denontzat izango da...



Hirugarrenez, beste diskoteka batzuetan “arropa saindegi”-ak erabiltzen dituzte, gure diskotekan, aldiz, **takila batzuk** egongo dira diskotekako eremu batean, non bertan, pertsona batek takilen erabilera zainduko duen. Bestalde, takila hauen erabilera oso berezia izango da, **takila ordaintzeko eta irekitzeko hatz marka erabili beharko da**, honek berezitasuna emango digu beste enpresekin aldatuz.

ZERK BEREIZTEN GAITU?	<ul style="list-style-type: none"> - Hatz markaren erabilera (gauzak ordaintzeko eta gordetzeko) - Adingabekoen eta jubilatuen sarrera - Takilak - Musika desberdina egun ezberdinetan. Musika ez matxista.
BALIO KUANTITATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Prezioa, guztientzat eskuragarri
BALIO KUALITATIBOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Erabilera anitzeko diskoteka - Adinaren arabera moldatuko gara - bezeroen beharrak asetzea